

IRAGARKIA

7. ALDIZKARIA - 2025eko urtarrilaren 13a

2. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

2.2. XEDAPEN ETA IRAGARKIAK, HERRIEN ARABERA ANTOLATUAK LAKUNTZA

2025erako lurralde-kontribuzioaren gaineko zergaren karga-tasa

Lakuntzako Udalak, 2024ko azaroaren 20an egindako osoko bilkuran, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean xedatutakoa garatzeko, erabaki hau hartu zuen:

- 1.–%0,205ekoa lurralde-kontribuzioaren gaineko zergaren karga-tasa onestea 2025. urterako.
- 2.–Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Udalaren iragarki-taulan eta web orrian (<http://www.lakuntza.eus>) argitara dadila agintzea, herritar guztiek horren berri izan dezaten.
- 3.–Alkatetzari ahalmena ematea akordio hau aplikatzeko eta garatzeko sinatu beharreko agiri guztiak sinatzeko.

Jende guztiak jakin dezan argitaratzen da.

Lakuntzan, 2024ko abenduaren 20an.–Alkatea, Oihane Uribeetxebarria Garmendia.

Iragarkiaren kodea: L2418668